


Euskal AEko kultura-jarduerak 1.713 milioi euroko balio erantsia sortu zuten 2022an, BPGren % 2,0

Enpleguari dagokionez, kultura-jarduerak lanaldi osoko 28.535 lanpostu baliokide izan ziren, guztizkoaren % 3,0

Eustatek egindako Kulturaren Kontu Satelitearen datuen arabera, Kultura-jardueren **Balio Erantsi Gordina (BEG)** 1.713 milioi eurokoa izan zen 2022an Euskal AEn, urte horretako BPGaren % 2,0. 2020. urtea pandemiaren baldintzapean egon bazen ere, 2022. urteak susperraldi argiaren zantzuak erakusten ditu, eta sektoreko BEGaren urte arteko tasa % 19,5koa da 2020. urtearekiko. BPGri dagokionez, kultura-sektoreak ehunen bat igo du bere partaidetza.

Kultura-jarduerak bereizten diren sektoreetatik, sortutako **BEGri** dagokionez, "Ikus-entzunezko eta multimedia" sektorea nabarmentzen da, 2022an 472 milioi euroko ekarpena egin baitzuen, kulturaren BEGaren % 27,6; ondoren, "Liburuak eta prentsa" dago, 431 milioirekin, hau da, % 25,2, eta, hirugarren lekuan, "Arte plastikoak", 425 milioirekin eta % 24,8ko ekarpenarekin. Hiruren artean kultura-jarduerak sortutako BEG osoaren % 77,6 hartzen dute. "Arte eszenikoak" sektoreak % 9,7 hartzen du, eta gainerakoa sektore hauek banatzen dute: "Artxiboak eta liburutegiak" (% 4,6), "Ondarea" (% 4,1) eta "Diziplinartekoa" (% 4).

Euskal AEko kultura-jardueren balio erantsi gordina, sektoreka. 2022 (p)



(p) behinbehineko datuak

Iturria: Eustat. Kulturaren kontu satelitea

Euskal AEko kulturaren BEGd-aren bilakaera eta egitura (mila eurotan). 2016-2022

	2016	2018	2020	2022 (p)	guztizkoaren gaineko %				Urteko aldakuntza-tasa (%)		
					2016	2018	2020	2022 (p)	2018 / 2016	2020 / 2018	2022 / 2020 (p)
SEKTOREKA											
GUZTIZKO KULTURAKO BEG	1.589.800	1.595.276	1.433.042	1.713.059	100,0	100,0	100,0	100,0	0,3	-10,2	19,5
Ondarea	54.636	53.277	56.113	70.363	3,4	3,3	3,9	4,1	-2,5	5,3	25,4
Arxiboak eta liburutegiak	54.489	62.995	63.221	79.633	3,4	3,9	4,4	4,6	15,6	0,4	26,0
Liburuak eta prentsa	482.772	473.146	395.383	431.082	30,4	29,7	27,6	25,2	-2,0	-16,4	9,0
Arte plastikoak	334.107	348.846	333.247	425.250	21,0	21,9	23,3	24,8	4,4	-4,5	27,6
Arte eszenikoak	169.044	154.880	112.949	165.640	10,6	9,7	7,9	9,7	-8,4	-27,1	46,7
Ikus-entzunezkoa eta multimedia	440.112	444.030	419.995	472.148	27,7	27,8	29,3	27,6	0,9	-5,4	12,4
Diziplinartekoa	54.640	58.102	52.134	68.943	3,4	3,6	3,6	4,0	6,3	-10,3	32,2
FASEEN ARABERA											
GUZTIZKO KULTURAKO BEG	1.589.800	1.595.276	1.433.042	1.713.059	100,0	100,0	100,0	100,0	0,3	-10,2	19,5
Nuklear-jarduerak, guztira	1.350.575	1.367.381	1.238.103	1.474.098	85,0	85,7	86,4	86,1	1,2	-9,5	19,1
Sorkuntza eta ekoizpena	797.544	822.824	751.925	898.834	59,1	60,2	60,7	61,0	3,2	-8,6	19,5
Fabrikazioa	178.393	168.406	127.586	154.656	13,2	12,3	10,3	10,5	-5,6	-24,2	21,2
Hedapena eta banaketa	186.119	180.639	159.405	200.457	13,8	13,2	12,9	13,6	-2,9	-11,8	25,8
Sustapena eta erregulazioa	54.640	58.102	52.134	68.943	4,0	4,2	4,2	4,7	6,3	-10,3	32,2
Hezkuntza	133.879	137.410	147.053	151.208	9,9	10,0	11,9	10,3	2,6	7,0	2,8
Osagarri-jarduerak, guztira	239.225	227.895	194.939	238.961	15,0	14,3	13,6	13,9	-4,7	-14,5	22,6
Fabrikazioa	13.716	10.562	7.899	12.017	5,7	4,6	4,1	5,0	-23,0	-25,2	52,1
Merkataritza eta konponketak	222.906	214.495	183.930	223.276	93,2	94,1	94,4	93,4	-3,8	-14,2	21,4
Besteak	2.603	2.838	3.110	3.668	1,1	1,2	1,6	1,5	9,0	9,6	17,9

(p)behinbehineko datuak

Data 2025eko Otsailaren 27a

Iturria: Eustat. Kulturaren kontu satelitea

Enplegua, lanaldi osoko baliokidetzako lanpostu gisa neurtuta (BLG), "Liburuak eta prentsa" lanaren ekarpenek markatu zuten, 8.177 BLG lanposturekin 2022an, hau da, kultura-sektoreei esleitutako enplegu guztiaren % 28,7, eta, ondoren, "Arte plastikoak", 7.943 enplegurekin (% 27,8); hirugarren postuan, "Ikus-entzunezkoak eta multimedia" sektorea dago, 6.935 lanposturekin (% 24,3).

Euskal AEko kultura-jardueren lanaldi osoko enplegu baliokidearen (LOB) bilakaera eta egitura. 2016-2022

	2016	2018	2020	2022 (p)	guztizkoaren gaineko %				Urteko aldakuntza-tasa (%)		
					2016	2018	2020	2022 (p)	2018 / 2016	2020 / 2018	2022 / 2020 (p)
SEKTOREKA											
GUZTIZKO KULTURAKO BEG	29.059	29.674	25.673	28.535	100,0	100,0	100,0	100,0	2,1	-13,5	11,1
Ondarea	888	953	827	900	3,1	3,2	3,2	3,2	7,3	-13,2	8,8
Artxiboak eta liburutegiak	978	1.047	898	989	3,4	3,5	3,5	3,5	7,1	-14,2	10,1
Liburuak eta prentsa	8.955	8.872	7.936	8.177	30,8	29,9	30,9	28,7	-0,9	-10,6	3,0
Arte plastikoak	7.412	7.596	6.674	7.943	25,5	25,6	26,0	27,8	2,5	-12,1	19,0
Arte eszenikoak	2.288	2.432	1.954	2.432	7,9	8,2	7,6	8,5	6,3	-19,7	24,5
Ikus-entzunezkoa eta multimedia	7.532	7.749	6.533	6.935	25,9	26,1	25,4	24,3	2,9	-15,7	6,2
Diziplinartekoa	1.006	1.025	851	1.159	3,5	3,5	3,3	4,1	1,9	-17,0	36,2
FASEEN ARABERA											
GUZTIZKO KULTURAKO BEG	29.059	29.674	25.673	28.535	100,0	100,0	100,0	100,0	2,1	-13,5	11,1
Nuklear-jarduerak, guztira	25.409	26.003	22.515	25.249	87,4	87,6	87,7	88,5	2,3	-13,4	12,1
Sorkuntza eta ekoizpena	14.531	15.109	13.047	14.796	57,2	13,2	12,5	12,4	4,0	-13,6	13,4
Fabrikazioa	3.431	3.436	2.821	3.134	13,5	14,4	13,4	12,7	0,1	-17,9	11,1
Hedapena eta banaketa	3.836	3.755	3.009	3.195	15,1	3,9	3,8	4,6	-2,1	-19,9	6,2
Sustapena eta erregulazioa	1.006	1.025	851	1.159	4,0	10,3	12,4	11,7	1,9	-17,0	36,2
Hezkuntza	2.605	2.678	2.787	2.965	10,3	12,4	12,3	11,5	2,8	4,1	6,4
Osagarri-jarduerak, guztira	3.650	3.671	3.158	3.286	12,6	12,4	12,3	11,5	0,6	-14,0	4,1
Fabrikazioa	394	309	258	291	10,8	8,4	8,2	8,9	-21,6	-16,5	12,8
Merkataritza eta konponketak	3.202	3.304	2.844	2.934	87,7	90,0	90,1	89,3	3,2	-13,9	3,2
Besteak	54	58	56	61	1,5	1,6	1,8	1,9	7,4	-3,4	8,9

(p)behinbehineko datuak

Data 2025eko Otsailaren 27a

Iturria: Eustat. Kulturaren kontu satelitea


Urte arteko tasetan, sektore guztiek, enpleguari dagokionez, hazkunde nabarmena izan zuten 2022an, eta % 10etik gora nabarmendu ziren "Arte eszenikoak" (+%24,5), "Arte plastikoak" (+%19,0) eta "Artxiboak eta liburutegiak" (+%10,1).

Kultura-ondasun eta -zerbitzuen balio-katearen faseei dagokienez, alde batetik "**Jarduera nuklearrak**" bereizten dira, besteak beste, "Sorkuntza eta ekoizpena", "Fabrikazioa", "Hedapena eta banaketa", "Sustapena eta erregulazioa" eta "Hezkuntza"; bestalde, "**Jarduera osagarriak**" jasotzen dira, "Fabrikazioa", "Merkataritza eta konponketak" eta beste jarduera batzuk barne hartzen dituztenak.

Jarduera nuklearrek, hau da, kultura-arloko berezko jarduerak, ematen diote pisu handiena kulturaren **BEGari**, % 86,1 2022an. Horien artean, garrantzitsuenak "Sorkuntza eta ekoizpena" izan zen, artisten lana barne hartzen duena (adibidez, literatura-lanak sortzea), baina baita kultura-zerbitzuaren ekoizpena ere, zerbitzu hori sormen-lanetik bereiz daitekeenean (adibidez, musika-kontzertu bat edo antzezlan baten antzezpena). Fase horrek 899 milioi BEG eragin zituen, hau da, BEG kulturalaren guztizkoaren % 52,5. **Jarduera osagarriek** kultura-ondasun eta -zerbitzuen erabilera eta gozamina errazten duten produktuak lortzea ahalbidetzen dute (adibidez, musika-tresnen fabrikazioa). Jarduera horiek kultura-sektorearen BEGren % 13,9 izan ziren 2022an, 239 milioi euro. Horien artean, "Merkataritza eta konponketak" arloarekin lotutako jarduerak nabarmentzen dira, besteak beste, audio- eta bideo-erreprouduzitaileak merkaturatzeko jarduerak eta horien konponketa, 223 milioiko ekarpena eginez eta BEG kultural osoaren % 13,0koa.


Kultura-jarduerari buruzko informazioa emateaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko Kulturaren Kontu Sateliteak **jabetza intelektualarekin lotutako jarduerari** buruzko datu osoak ere ematen ditu. Kategoría honek ez ditu kultura-jarduera batzuk barne hartzen — kultura-ondarearen kudeaketarekin eta kulturarekin, sustapenarekin eta erregulazioarekin lotutakoak, esaterako — baina publizitatearekin eta informatikarekin lotutako beste batzuk ere biltzen ditu.

Euskal AEko kultura-jardueren eta jabetza intelektualarekin lotutako jardueren balio erantsi gordina (milioi eurotan). 2016-2022



Jabetza intelektualari lotutako jarduerari lotutako **BEG**, oro har, kultura-jarduerak zentzu hertsian sortzen dutena baino handiagoa da, eta 2022an 1.959 milioi eurokoa izan zen, 2020arekin alderatuta % 23,7ko igoerarekin. BPGari dagokionez, jabetza intelektualari lotutako jarduerak % 2,26 izan ziren 2022an.

Euskal AEko kultura-jardueren eta jabetza intelektualarekin lotutako jardueren balio erantsi gordina (BPGren %). 2016-2022



Jabetza intelektualari lotutako jarduerak **BEGri** egindako ekarpenik handiena, 2022an, "Kultur jarduerak" izan zen, 1.456 milioi euroekin, hau da, guztizkoaren % 74,3; "Informatikarekin" lotutako jarduerak 328 milioi euro ekarri zituzten (% 16,7), eta "Publizitatearekin" lotutakoek 176 milioi euro (% 9,0).

Euskal AEko jabetza intelektualari lotutako jardueren datu nagusiak. 2016-2022

	2016	2018	2020	2022 (p)	guztizkoaren gaineko %				Urteko aldakuntza-tasa (%)		
					2016	2018	2020	2022 (p)	2018 / 2016	2020 / 2018	2022 / 2020 (p)
SEKTOREKA											
BEG GUZTIRA (milaka euro)	1.725.791	1.752.767	1.583.984	1.959.361	100,0	100,0	100,0	100,0	1,6	-9,6	23,7
Hertsiki kulturalak diren jarduerak	1.372.409	1.373.824	1.203.908	1.455.648	79,5	78,4	76,0	74,3	0,1	-12,4	20,9
Informatika	204.935	220.205	235.443	327.682	11,9	12,6	14,9	16,7	7,5	6,9	39,2
Publizitatea	148.447	158.738	144.633	176.031	8,6	9,1	9,1	9,0	6,9	-8,9	21,7
Lan-postuak (LOB), guztira	32.517	33.482	29.164	32.659	100,0	100,0	100,0	100,0	3,0	-12,9	12,0
Hertsiki kulturalak diren jarduerak	24.990	25.481	21.614	23.948	76,9	76,1	74,1	73,3	2,0	-15,2	10,8
Informatika	4.028	4.375	4.313	4.865	12,4	13,1	14,8	14,9	8,6	-1,4	12,8
Publizitatea	3.499	3.626	3.237	3.846	10,8	10,8	11,1	11,8	3,6	-10,7	18,8

(p)behinbehineko datuak

Data 2025eko Otsailaren 27a

Iturria: Eustat. Kulturaren kontu satelitea

Ohar metodologikoa:

Euskal AEko kulturaren kontu satelitea (KKS) Eustatek egiten dituen gainerako kontu sateliteekin bat egiten duen eragiketa da. Kontu satelite bat eragiketa estatistiko bat da, ekonomiaren sektore baten errealitatea islatzen duena, Kontabilitate Nazionalaren esparru orokorrean erabiltzen diren printzipio, kategoria eta balorazio-irizpide berberak erabiliz. Jarduteko modu horrek sektorerako lortutako emaitzen eta ekonomia osoaren emaitzen arteko erabateko alderagarritasuna bermatzen du. Kulturaren kontu satelitea UNESCOk 2009ko Kultur Estatistiken Esparruaren azken edizioan proposatzen duen kultura-sektorearen mugaketan oinarritzen da, bai eta estatuko eta nazioarteko beste erreferentzia metodologiko batzuetan ere.

2022. urteari dagozkion Euskal AEko Kontu ekonomikoen zabalkundearekin bat etorritik (behin betiko zenbatespenak), Eustatek oinarri-aldaketa bat egin du (2022. oinarria), Eurostatek ezarritako ezohiko berrikuspenen Europako politikari jarraituz. Politika horrek mugari hori ezarri du 2024. urterako aurreikusitako Kontabilitate Nazionalaren hedapen guztietarako. Berrikuspen horren ondorioz, zifra berrietara egokitzeko lanak egin dira, bai BEGan, bai enpleguetan, bai kontua lortzearekin zerikusia duten gainerako aldagaietan.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62